

eusteko ta aberria ere laguntzeko, ez al litzaieke guziz egokia izango goitik beraño alkartzea?

Amaika gauzak euskaldunok egiteko ta burutzeko dauzkagunak, gure sorterriaren biziari dagozkion azpegi guztietan. Ez da bear, gaur, gauza oiek zeintzuek diran aipatzea; gutxi gora bera, guzion baitan ikus dezakegun guziok beren berri, orrela

nai izan ezkerro.

Gaitza ikustea ta sendatu nai izatea; ortxe asiera. Eta guziok, ortan, sendagille izan bear. Euskadi'n bertan eta kanpoan, nunai. Amerika'n ere alakotz. Zergatik zirikatzen gaitu orren maiz ta sakon, alkartasunari buruz, batez ere, Amerika' rekiko asmoak?

Azparren

KEZKATI NAUK, KEZKATI

Otsalar

Euskeraren bizitza, arlo ardurakor,
gainbera ikusteakin ipintzen nauk kezcati.
Erri bati bere izkuntzak ematen zioz nor
izatea. Erri bakoitzak zeramak bere agiri.

Euskaldunen entzumenak ote dituk ain gor?
Euskera!: noren errukigetahunak an i jarri
sentz ergel onen mendean? Mintzaira jator,
ez ditez eusko semeak ire edertasunik merezi.

Gaurko euskotarrak, politikalarri utsak,
gogoz txiroak eta arrokeria ugari:
etsaien oparirako azaldurik parregarri.

Obe genukek, laguntzak, eman euskerari,
munduaren aurrean izan ezgaitezen lotsagarri.
Euskera gabe, obe bai duk erri bezela ez bizi.

NIRE LURRALDEAREN DEIA — MAGALI HELLO

Otsalar'ek euskeratua

Emen dago a,
mendi ontatik irtena,
errekaxoaren marmarra entzuten duen a,
aize ta lurraren ayotsak entzuten dituana,
mendia bere oñarrietan tinko ikusten duan a,
arbasoen deia entzuten duen Tell,
bere zინestahunaren esaneko da,
a izango da altzairuzko esia ausiko duena,
deuseztzaille dan berunaren garaile:
gaua ikusi duen Tell,
Tell'ek salbatuko du berea dan erria.